

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroak enpresa bat funtzionatzeko eta diru-sarrerak lortzeko ezinbestekoak dira, beraz, beharrezkoa da definitzea zer-nolako harreman mota izan nahi dugun gure enpresa eta bezeroen artean.

“Meatchine” denda fisikoen nahiz web-orriaren bidez salduko dugunez bi harreman-konbinazio mota hauek izango ditugu:

- **HARREMAN PERTSONALA LAGUNTZA PERTSONALAREKIN:**

Harreman pertsonala izango dugu bezeroekin denda fisikoen bitartez, bezeroak salmenta-puntu fisiko batera joan beharko dira, eta bertan aurrez-aurre egongo dira saltzaile batekin, zeinak lagunduko dion erosketan, erabakitzen edo edozertan.

- **HARREMAN AUTOMATIZATUA AUTOMATIZATUTAKO ZERBITZU ETA SORRERA-KIDETZAREKIN:**

Harreman automatizatu izango dugu erosleekin web-orriaren bidez, bertan online dendako pausuak jarraituz eta emandako informazioa eta iradokizunak jarraituz egingo ahal izango dute gure produktuaren aukeraketa eta erosketan. Gainera, guztiz konbentzita ez badaude eta ez badakite ea produktua erosi edo ez beste bezero batzuen esperientziak irakurri ahal izango dituzte eta horren arabera erabaki. Beraz, bezeroak aukera izango dute haien iruzkinak usteko web-orrian beste batzuei lagundu ahal izateko edo guk gure produktua edo zerbitzua hobetu dezagun.

Beste alde batetik, bezeroen eta enpresaren arteko harremanak zenbait motibazioen bidez burutzen dira:

- ★ **BEZERO BERRIAK LORTZEKO:** Enpresa bat martxan jartzeko beharrezkoa da bezeroak lortzea, produktuak saldu ahal izateko eta etekinak izateko. Horretarako eskaintza bereziak egiten dira, jendea erakartzeko
- ★ **ENPRESAK DAGOENENKO DAUZKAN BEZEROAK MANTENTZEKO:** Enpresak nahiko bezero dituenean haiek mantendu behar ditu, zenbait etekin finke eduki ahal izateko. Horretarako, zenbait pribilegio ematen zaie ohiko bezeroei, enpresan erosten jarraitu dezaten.
- ★ **SALMENTA-KOPURUA HANDITZEKO:** Kostuak handitzen direnean beharrezkoa da salmenta-kopurua handitzea diru-sarrera gehiago izateko eta etekinak izaten jarraitzeko, inolako galerarik eduki gabe, edota hargatik diru-sarrera gehiago eduki nahi direnean zerbait gehiago egin ahal izateko edo beste leku batzuetan inbertitzeko.